

# 2017KO HITZARMEN PLATAFORMA LABen PROPOSAMENA

Berria

(KENDU)

"ALDATU"

HITZARMENA NEGOZIATZERA PASATU AURRETIK, AKORDIO OSAGARRIEN HIRUGARREN AKORDIOA BERRETSI BEHARKO DA ETA BERE EGUNEAN ENPRESAK KENDUTAKO %1 BUELTATU BEHARKO DU.

## 4.Art. INDARRALDIA

Hitzarmen honen indarraldia 2017ko urtarrilaren 1ean hasi eta 2018ko abenduaren 31n amaituko da.

## 8.Art. ANTOLAKUNTZAKO ERREKLAMAZIOENTZAKO PROZEDURAK

SEGURTASUN ERRAKUNTZAK deritzon prozedura antzeko bat ezarri antolakuntza erreklamazioetarako zein ekoizpen prozedura errakuntzetarako.

## 9.Art. PRINTZIPIO OROKORRA

### (HIRUGARREN PARAGRAFOA)

4. PARAGRAFOA: Ekoizpenaren egoera eta obrak eta zerbitzuak direla medio, Tubos Reunidos Industrial SLU-k (BEHAR BEHARREZKOAK DIREN) aldi baterako kontratuak (SOILIK) egiteko konpromisoa hartzen du. Ildo horretan, 2013. urtetik aurrera, kontratazio-mota horrek ez du gaindituko plantilla osoaren %7 "%5" urtean. "EHUNEKO HORI GAINDITUZ GERO, GAINDITUTAKO ZENBATEKOA KONTRATU MUGAGABEAK EGINGO DITU URTEAREN LEHENENGO HIRU HILABETETAN". Behin betiko kontratuak izapidetzeko, antzintasun-ordenari jarraituko zaio, Tubos Reunidos Industrial SLUekin sinatutako lehenengo kontratua aintzat hartuta.

Aurreko paragrafoan azaldutakoa argitzeko, honako aplikazio formula hau baliatuko da: [Aldi baterako langileen alta-egunak Gizarte Segurantzari, guztira/365 = Aldi baterako langileen batez besteko kontratazioa urtean (EGOERA ETA OBRA EDO ZERBITZU) Aldi baterako langileen batez besteko kontratazioa urtean – [Plantillaren urteko batez bestekoaren %5] = Gehiegizko aldi baterako langileak.

### 1.4 (EKONOMATOA)

# 2017KO HITZARMEN PLATAFORMA LABen PROPOSAMENA

Berria

(KENDU)

"ALDATU"

## 10.Art. KALIFIKAZIO-SOLDATA

Soldataren igoera TRIko langile guztientzako, EAEko KPI errealaren (Eustaten argitaratutakoa oinarritzat hartuta) gehi 2 puntu urtero izango da kontzeptu guztietarako TOTAL 1 izan ezik, honek 808,54€ko igoera izango du (TOTAL 1aren batz besteko soldataren %2a).

Tubos Reunidos Industrialen kontratua indarrean duen pertsona langile orok, bai espezialistak zein enpleguak, bakoitzak bere kategorian dagoen kobratzeko maila baxuena kobratuko du gutxienez.

## 12.Art. LANPOSTUETAKO OSOGARRIAK

### 12.2 GAU-PLUSA

Lan egiten den gau bakoitzeko, 20 minutu gehitu egingo zaizkio langilearen pilotutako orduetan. Tubos Reunidos Industrialeko langile orok, gau-plusaren balioaren %25a bildutako orduengatik aldatzeko aukera izango du. Kalkulu hau, dagoen kobratzeko maila baxuena aintzat hartuta, soldata taulen TOTAL 1aren arabera egingo da. (Lana, bizitza pertsonala, menpeko pertsonak eta familia uztartzeko hartu behar liratekeen neurrien helburu nagusien barruan ezartzen da).

## 13.Art. LANAREN KANTITATE ETA KALITATEAREN OSAGARRIAK

### 13.2 APARTEKO ORDUAK

#### A) Erregulazioa eta zenbaketa

Jardunalditik pasatzen diren ordu guztiak deskantsurako erabiliko dira. Zenbaketa egiteko asteburu edo festa egunetako orduetatik ezberdinduko da, %200 izanik lan egunetan zehar egiten dena eta %250 asteburu edo jai egunekoak.

#### B) Saillapena

## II. Nahi ta nahiezkoak

# 2017KO HITZARMEN PLATAFORMA LABen PROPOSAMENA

Berria

(KENDU)

"ALDATU"

## (2. PARAGRAFOA)

### 13.3 MARTXA HASIERA ETA INSTALAZIOEN ITXIKERA

Langilearen esku egongo da plusa kobratzea edo orduak disfrutatzea eta bai martxa hasiera zein instalazioen itxikeran 4 ordura murriztuko da gehienez.

### 16.Art. GIZARTE-SEGURANTZAREN BABES-EKINTZAREN BORONDATEZKO HOBEKUNTZA DAKARTEN LAGUNTZA-PRESTAZIOAK

#### 16.2 ALDIBATERAKO EZINTASUN PRESTAZIOA

##### Gaixotasun arrunta

Urtean hartzen den lehenengo gaixotasun arruntagatik ezintasuna lan istripu bezala hartuko da. Bigarrenetik aurrera hurrengo printzipioak izango ditu:

1.)...

##### Haurdunaldian dagoen arriskuagatik prestazioa

Haurdun dauden langileak aldibaterako ezintasun prestazioa hartzeko aukera izango du lan istripuagatik hartzen den prestazioak duen baldintza berdinetan. Prestazio hau haurdunaldian dagoen arriskuaren prestaziogatik izango da eta enpresa izango da bideratzeak egingo dituenak langilea izan beharrea.

##### 18.Art. LANALDIA

2017 urterako ezarriko den lanaldia 1656 ordutakoa izango da eta 2018 urterako 1648 ordutakoa.

Lanaldi batetan 12 ordu baino gehiago ezin dira lan egin (eguneko lanaldia + instalazioen irekiera edo itxiera + aparteko orduak =<12).

# 2017KO HITZARMEN PLATAFORMA LABen PROPOSAMENA

Berria

(KENDU)

"ALDATU"

## 1- LANALDI ZATITUA.

Lanak baimentzen duen departamentuetan, bai modu bakarkakoan zein taldeka, langileak hartuko du sartu eta irteteko ordutegiak bere lanaldiarekin bete eta gero eta bazkaltzeko ordua 13:00tik 15:00era bitarte izango da. Ekaina, Uztaila, Abuztua eta irailean eguneko egutegia duten langileak 7:00tatik 15:00tara egin ahal izango dute. (Lana, bititza pertsonala eta familiarra uztartzeko hartu behar liratekeen neurrien helburu nagusien barruan ezartzen da).

### 19.Art. EGUTEGIAK ETA ORDUTEGIAK

Departamentu eta instalazio guztietako egutegiak aurreko urteko abenduak 1 baino lehen banatuko dira. (Lana, bititza pertsonala, menpeko pertsonak eta familia uztartzeko hartu behar liratekeen neurrien helburu nagusien barruan ezartzen da).

Enpresak emandako egutegian aldaketa bat dagoenean, kaltetutakoek bildutako ordutegietan 24 ordu pilatuko dituzte.

Urriak 12, zein abenduak 6 ez dira jai egun moduan hartuko, hauen ordeztu, uztailak 7 (TRko lehenengo galda), martxoak 8 (emakumearen eguna) eta abenduak 3 (euskararen eguna) hartuko dira jai egun moduan.

Lan egutegi guztiak gutxienez, disfrutatzen 5 egun libre izango ditu.

Egutegiko egunak gainditu dituzten langileek egun libreak hartu ahal izango dituzte, urteko lanaldia bete arte. Ahal dela, asteburuei gehituko dizkiete, nagusiari bi egun lehenago jakinarazita. Dena den, sail bakoitzeko bi lagunek, gehienez, hartu ahal izango dituzte batera egun libreak. 8 langile baino gutxiagoko sailetan langile bat besterik ezin izango du egun libreak hartu.

Alternatiba moduan eta 15 eguneko epearekin abisatuta, sail bakoitzean egun horiek disfrutatzen aukera duten langile kopurua handitu ahal izango da hurrengo irizpideak jarraituz:

1.- 8 espezialista baino gehigoko sailetan: langilearen %15a.

# 2017KO HITZARMEN PLATAFORMA LABen PROPOSAMENA

Berria

(KENDU)

“ALDATU”

2.- 8 espezialista baino gutxiagoko sailetan: langile 2.

Ekoizpenak baimentzen duen guztietan kopuru hauek handitu ahal izango dira. (Lana, bizitza pertsonala eta familiarra uztartzeko hartu behar liratekeen neurrien helburu nagusien barruan ezartzen da).

(Egutegiko egunak gainditzeagatik metatutako egunak urte naturalaren barruan hartu beharko dira edo, edonola ere, hurrengo urteko lehenengo hiruhilekoaren barruan).

## 20.Art. OPORRAK

Lantoki bakoitzeko lan-egutegiak egituratzean, oporraldiak uztaila eta abuztua bitartean (EZARRI AHAL IZANGO) “EZARRIKO” dira, egun indarrean dauden araudiekin bat etorritik.

## 21.Art. LANEN FUNTZIOEN ZEHASTAPENAK

“BAI ESPEZIALISTA, OFIZIAL ZEIN ENPLEGATUEN” (LANGILEEN) lanpostuak baloratzerakoan, lanpostuetako lanen eta funtzioen inguruko azterketa bat egingo da (analisi orria).

## 26.Art. LANPOSTU HUTSAK

5. Bere esleipenerako azterketa bat gainditzea ezinbestekoa den taulara irtendako lanpostuetarako, Giza Baliabideetako Zuzendaritzak ikasgai zerrenda eguneratu bana ateratzera behartuta egongo da eta ikasgai hauetatik irtengo dira azterketako galderak test formatuan. Aurkeztutako langile bakoitzak, ikasgai bat jasotzeko eskubidea izango du lanpostu bakoitzeko.

# 2017KO HITZARMEN PLATAFORMA LABen PROPOSAMENA

Berria

(KENDU)

"ALDATU"

## 27.Art. LANPOSTU HUTSEN ESLEIPENAK

(BALIOZTATUTAKO LANPOSTU GUZTIAK NAHITAEZ EGONGO DIRA SAILKATUTA HIRU MAILATAN. A MAILARI GUTXIENEZ 60 PUNTU DAGOZKIO, ETA 6. BALIOZTAPENTALDEARI EDO GORAGOKOEI ESKATU AHAL IZANGO ZAIE; B MAILARI 50 PUNTU DAGOZKIO, ETA 4. ETA 5. BALIOZTAPEN-TALDEEI ESKATU AHAL IZANGO ZAIE ETA, AZKENIK, C MAILARI 40 PUNTU DAGOZKIO, ETA 3. BALIOZTAPEN-TALDEARI ETA BEHERAGOKOEI ESKATU AHAL IZANGO ZAIE.)

Baloratutako lanpostu guztiak, bi mailatan sailkatuta egongo dira: A maila, 9 balioztapen taldekoak zein altuagoentzako; B maila: 8 balioztapen taldekoak zein baxuagoentzako. A mailako lanpostuak esleitzeko oinarritzko irizpidea gaitasuna (**GAITASUN NAHIKOA**) izango da. B mailakoentzako hurrengo lehentasun zerrenda kontutan izango da:

1. Gaitasun fisiko murriztua duen langilea.

2. Esleitutako lanpostua ez duen alboratutako langilea, ondorengo ordenean: balioztapen talde altuagoa, berdina eta baxuagoa.

(3. EGUN BETETZEN DUTEN LANPOSTUARI DAGOKION ORDAINSARITIK GORAKO ORDAINSARI BERMATUA DUTEN LANGILEAK).

(4. HUTSIK DAGOEN LANPOSTUAREN ATAL BEREAN JARDUTEN DUTEN LANGILEAK).

5. Lanpostua eskatu duten langileen antzintasuna.

(A- DEPARTAMENTUAN)

B- 1. Kontratua enpresan.

(6. INDARREAN DAGOEN HITZARMENEKO 37. ARTIKULUAGATIK MUGITUTAKO LANGILEAK)

7. Lanpostu baten behin-behinekoz dagoen langile bat.

# 2017KO HITZARMEN PLATAFORMA LABen PROPOSAMENA

Berria

(KENDU)

"ALDATU"

## 28.Art. BETE GABEKO DEIALDIAK

Alderatuta dagoen langile orok gutxienez taulara ateratako esleitu gabeko deialdi batera aurkeztera derrigortuta dago. Azterketa egin eta gero esleitu gabeko posturen bat bete gabe geldituko balitz, lanpostu horiek 27. artikuluan ezarrita dagoen lehentasun zerrendaren baitan banatuko dira postu gabeko langile finkoen artean. **(EDO AURKEZTU DIRENETATIK BAT BERA ERE EZ BADAGO PRESTATUTA HUTSIK DAGOEN LANPOSTUAN ARITZEKO, ENPRESAKO ZUZENDARITZAK, BEHAR IZANEZ GERO, ALDI BATERAKO LANGILEEN, LANPOSTUA ESLEITU GABE DUTEN LANGILE FINKOEN EDO ENPRESATIK KANPOKO LANGILEEN BIDEZ BETEKO DU LANPOSTUA. PERTSONA HORIEK BEHAR BEZALA FROGATUTAKO GAITASUNA ETA ESKARMENTUA IZAN BEHARKO DUTE, 25. ARTIKULUAN EZARRITAKO BALDINTZAK BETETZE ALDERA).**

## 29.Art LANPOSTU HUTSAK BETETZEA ETA EGOKITZEALDIA

Langileari lanpostua atera duela esan diotenetik eta ematen diotenerarte ezin dira lau hilabete baino gehiago pasatu.

## 36.Art. TXANDEN ALDAKETAK

Langile batek txanda aldaketa jasotzen duen bakoitzean 8 ordu gehiago izango ditu bildutako ordutegian.

## 37.Art. BEHIN BETIKO LANPOSTUEN ALDAKETAK

Lanpostuaren titularrak, egokitzen garaian lanpostua atera duen langileari lanpostua irakasteagatik ordainsari moduan 16 ordu gehituko ditu bere bildutako orduetan.

## 40.Art. PRINTZIPIO OROKORRA (TREBAKUNTZA)

Lanpostuari lotuta dauden trebakuntza ikastaroak lanorduetan izango dira. Lanpostuaren balorazioan ez daudenak eta hala eta guzti ere enpresak behartuta jaso behar diren trebakuntza ikastaroengatik gehigarritzko trebakuntzagatik plus bat jasoko da. Kalifikazio soldataren %1a.

# 2017KO HITZARMEN PLATAFORMA LABen PROPOSAMENA

Berria

(KENDU)

"ALDATU"

## 40.1 APLIKAZIO IRIZPIDEAK

- Ikastaroak irekiak "IZANGO" (IZAN AHALKO) dira, hau da, edozein interesatutako langile parte hartu ahal izango du nahiz eta lanpostuari lotuta ez egon; kasu hauetan ikastaroak lanorduetatik kanpo izango dira.

## 44.Art. ORDAINDU GABEKO BAIMENAK

Langileak urtean bakar baten eta gehienez 30 eguneko iraupeneko ordaindu gabeko baimena hartzeko eskubidea izango du.

Langileak behar izanez gero, lanaldi murrizketa baten eskubidea izango du bere lanaldiaren murrizketa beste kontratu berri batez beteaz. . (Lana, bizitza pertsonala, menpeko pertsonak eta familia uztartzeko hartu behar liratekeen neurrien helburu nagusien barruan ezartzen da).

## 45.Art. ORDAINDUTAKO LIZENTZIAK

Jarraian aipatzen diren kasuetan, langileek ordaindutako baimena jasotzeko eskubide izango dute, betiere, lehenbailehen abisatuta eta lantegira itzuli eta bi eguneko epean ez-agertzearen ziurtagiria aurkeztuta:

- Egun natural (BAT) "BI" guraso, seme-alaba eta anai-arreben ezkontzogatik eta osaba-izeben eta iloben heriotzogatik.
- (HIRU) "ZAZPI" egun natural edo (BI) "BOST" lanegun emaztea edo bikotekidea erditzen bada.
- Bikoteak, semeak edo alabak gaixotasun larria badu, (HIRU) "LAU" egun natural, eta gurasoen, anai-arreben, aitona-amonen edo biloben kasuetan (BI) "HIRU" egun natural. Holako kasuetan, enpresa eta langilearen arteko akordioa izanda, lanaldi erdietan banatu daitezke ordaindutako lizentziak.

Larritzat joko dira ospitalizazioa eta ebakuntza ospitalizazioarekin eskatzen duten egoerak, edo ospitalean ebakuntza-ondoko mediku behaketa eta 24 ordu baino gehiagoz etxean atsedena eskatzen dutenak.



# 2017KO HITZARMEN PLATAFORMA LABen PROPOSAMENA

Berria

(KENDU)

"ALDATU"

Ospitalizazioa epe luzekoa baldin bada, 30 egun naturalero ordaindutako lizentzia hartzeko eskubidea izango du langileak. (Lana, bizitza pertsonala, menpeko pertsonak eta familia uztartzeko hartu behar lirartekeen neurrien helburu nagusien barruan ezartzen da).

Lizentzia eragin duen egoerak bere horretan jarraitzen badu eta, lan-sistema dela medio, lizentzia hartu ez bada, hartzeko eskubideari eutsiko zaio. Hartara, lizentzia ordaindu honen erabilpena atzeratu ahal izango da, senidearen ospitalizazioak dirauen bitartean.

- (BI) "HIRU" egun natural aitona-amonen edo biloben heriotzagatik.
- (HIRU) "LAU" egun natural gurasoen edo anai-arreben heriotzagatik.
- (LAU) "BOST" egun natural ezkontidearen edo seme-alaben heriotzagatik. Langileak, bere borondatez, egun bat atzera dezake baimenaren hasierako eguna.
- (HAMABOST) "HAMAZORTZI" egun natural ezkontzeagatik. Erraztasunak emango dira baimen hau urteko oporrekin lotu ahal izateko. Baimen hori oporrak kalkulatzeko modu berean ordainduko da.

Menpeko pertsonak ( bikotea, gurasoak eta seme-alabak) medikura lagundu ahal izateko 16 ordu urtero izango ditu langileak. (Lana, bizitza pertsonala, menpeko pertsonak eta familia uztartzeko hartu behar lirartekeen neurrien helburu nagusien barruan ezartzen da).

Langilea eta enpresaren arteko akordioa egonda, gaixotasun larriagatik hartutako ordaindutako lizentziak lanaldi erdietan banatu ahal izango dira, beti ere enpresaren ekoizpen prozesua zein antolakuntzan kalteak egiten ez duenean.

# 2017KO HITZARMEN PLATAFORMA LABen PROPOSAMENA

Berria

(KENDU)

"ALDATU"

- LANALDI MURRIZKETA:

Bere menpeko moduan 12 urte beherazko seme-alabak edo ordaindutako lan bat egiten ez duen desgaitasun sensorial, psikiko edo fisikoa duen pertsona bat zaindu behar duen langileak, lanaldia murrizteko eskubidea izango du. Murrizketa lanaldiaren zortzirena eta erdia artean egongo da soldatak murrizketa proportzionala jasoz. Murrizketa egunero hartu den proportzioa murriztuz edo lanaldi osoak murriztuz hartu ahal izango da.

46.bis Art. ZATI BATEAN ORDAINDUTAKO BAIMENA

(LANTOKIAN GUTXIENEZ 10 URTEKO ANTZINATASUNA) "FINKOAK" eta gutxienez lanaldi arruntaren ehuneko 80a duten langileentzat zati batean ordaindutako baimena ezartzen da, betiere langilegoaren (5) "6" langile baino gutxiago eta saileko (2) "3" baino gutxiago direnean baimen horretaz baliatzen ari direnak.

II. ERANSKINA: ZATI BATEAN ORDAINDUTAKO BAIMENAREN ARAUDIA

1-

- (LANGILEAK GUTXIENEZ HAMAR URTEKO ANTZINATASUNA IZAN BEHARKO DU ENPRESAN BAIMENA ESKATZEKO).

- Baimen hori, gehienez, enpresako (5) "6" langilek eta saileko (2) "3" langilek eskatu ahal izango dute batera urtean

7- ( LANGILEAK, GEHIENEZ, BEHIN HARTU AHAL IZANGO DU BAIMEN MOTA HORI LAN – BIZITZA OSOAN). Zati batean ordaindutako baimen hau berriro hartu ahal izateko, 3 urte pasatu beharko dira aurrekoaren bukaera eta bestearen hasiera artean.

10- Edozein arrazoiengatik, enpresan alta ez egotekotan 5 urteetan, ordainketak sortutakoak, giza kotizazioak eta atxikipen fiskalak erregularizatuko dira zati batean ordaindutako baimenaren hasieratik.

55.bis Art.BEHIN BEHINEKOEN TXOSTEN NEGATIBOAK

# 2017KO HITZARMEN PLATAFORMA LABen PROPOSAMENA

Berria

(KENDU)

"ALDATU"

Txosten negatibo bat ezartzen zaion behin-behinekoari, bere azken lanegunetik, 10 laneguneko epean askoz jota, idatziz emango zaio eta txosten horretan ez-gaitasunaren arrazoiak etorriko dira. Langileak txosten negatiboa jaso eta gehienez 10 laneguneko tartea izango du bere argudioak helarazteko. Kasu hauetan departamentu aldaketa baten aukera emango zaio.

## 61.Art. JANTOKIAK

TRiko langile guztientzat zerbitzua mantenduko da txartel-bazkaria sistemaren bitartez, eguerdiko bazkarietarako soilik eta lantegitik gertu dauden tabernetan 12 €roko balioarekin. **(LANGILEEK TXARTELAREN BALIOAREN %5 ORDAINDU BEHARKO DUTE MENUEN KOSTUARI AURRE EGITEKO 2017KO URTARRILAREN 1ETIK AURRERA).**

Dagokien ordutegiagatik, lanetik irten eta egunean bertan berriro lanera joan behar diren langileei, distantzia plusa ordainduko zaie.

## 75.Art. ASANBLADAK

Batzordea eta langileen arteko komunikazioa hobetzeko, 3 hilero eta egoeren arabera, 2 orduko asanblada informatiboak edo orokorrak egingo dira.

## 78.Art. SEGURTASUNA ETA PREBENTZIOA

### SEGURTASUN KOMITEA

Osasun eta Segurtasun Komiteko (O.S.K) lehendakaria ez da prebentziorako nagusia izango eta Zuzendaritzak izenpetuko du, lehendakariak idazkaria izenpetuko du.

Gai-zerrendan gutxieneko puntu hauek egongo dira:

- Aurreko akta ontzat ematea.
- Enpresan egon diren istripuen ikerketa eta jarraipena egitea.

# 2017KO HITZARMEN PLATAFORMA LABen PROPOSAMENA

Berria

(KENDU)

"ALDATU"

- Akordioak betetzen direnaren jarraipena.

- Aurkeztutako gai berriak.

31/95 legean, 39.artikuluak dauden eskumenak eta gaitasunak alde batera utzita, O.S.Kak hurrengo funtzioak izango ditu:

- Lan arriskuen prebentzioan dauden legeak bete eta sustatzen direla.

- Prebentzio Urteko Plana argitaratu aurretik informatua eta galdetua izan.

- Prebentzioa ahalik eta eraginkorrena izateko hobekuntzak aurkeztu gero Zuzendaritzak aztertu ditzan.

- Prebentzioko zerbitzuko ekinbideak zein honek egindako ikerketa eta analisiak ezagutu.

- Langileen osasunaren zaintza zein lanpostu bakoitzeko zaintza protokoloak ezagutu.

- Prebentzioko zerbitzuko urteko memoria ezagutu.

- Langileen osasunean eragindako arazo zein neurri zuzentzaileen berri izan.

- Posible izatekotan, Enpresa Batzordeko edozein kide edo edozein sindikatuk, lan-ikuskaritzan salaketa sartu baino lehenago, lan osasuna eta prebentzioarekin zerikusia duen oro ezagutu eta aztertu.

## PREBENTZIO ORDEZKARIAK

Langileen partaidetza prebentzio ordezkarien bitartez eta 31/95 legeak dakarren eskumenak eta gaitasunekin izango da.

Aurrekoari kalte egin barik, langileen ordezkariak prebentzio ordezkari moduan eta 31/95 legeak bere 36 eta 37.artikuluak ematen dieten eskumenak eta ahalmenekin, edozein langile izendatzeko aukera izango dute, nahiz eta Enpresa Batzordeko kidea ez izan.

# 2017KO HITZARMEN PLATAFORMA LABen PROPOSAMENA

Berria

(KENDU)

"ALDATU"

Prebentzioarekin erlazionatutako lanak egiteko, 40 orduko kreditua izango dute, O.S.Kko orduak kontutan hartu barik ezta 31/95 legeko 36 eta 37.artikuluarekin erlazioa duten lanak egiteko.

Enpresa Batzordekoak eta aldi berean O.S.K.ko kide diren ordezkariak, gehigarri moduan 16 orduko kreditu izango dute hilero prebentzioarekin erlazionatutako gaiak lantzeko.

## 79.Art. BEREIZKETARIK EZ

Seme-alabak jaiotzerakoan, esne-aldirako ordaindutako 30 minutuko bi baimenak pilatu ahal izango du bai amak edo aitak lanaldiaren hasieran edo bukaeran.

Hitzarmen osoan dauden artikuluak, ezkontidearen eskubide berdinak izango ditu izatezko bikotekideak, beti ere legediak ematen duen ziurtagiria aurkeztuta. Baita ere bikoteko bizitza egiten duten bikoteak, bizikidetasuna demostratu eta gero.

## Art. BERRIA: ENPRESA SUBROGAZIOA

Lanpostuak mantentzeko helburuarekin, automatikoki irteten den enpresako langileak, zerbitzuaren emakidadun berrira pasatuko nahiz eta nortasun juridiko ezberdina izan: S.A., S.A.L., Kooperatiba edo enpresaria hurrengo adibideetan:

1- Utzitako enpresan lanean dauden langileak leku berean lan egiten dutenean, lan kontratua eta lanaldiaren iraupenari begiratu barik. Kasu honetan lan lekuari atxikitutako langileak soilik ulertuko da subrogazioa.

2- Azpikontratutako enpresaren titulartasuna aldatzerakoan, aldi-baterako ezgaitasun batekin, behin behineko baliogabetasun batekin, eszedentzia batekin edo oporretan aurkitzen dauden langileak tituludun berrira atxikiturik egongo dira.

3- Kaltetutako langileak beraien lanaldia beste lan leku batzuekin partekatzen dutenean.

# 2017KO HITZARMEN PLATAFORMA LABen PROPOSAMENA

Berria

(KENDU)

"ALDATU"

4- TRIren eskakizunak direla eta, azpikontrata langile gehiagorekin handitu beharko balitz, langile honek ere enpresa berriaren parte izatera pasako liritezke.

5- TRIk azpikontrata batekin kontratua bertan behera utziko balu bere langileekin egiteko eta beste azpikontrata bat kontratatuko balu 18 hilabete pasatu barik, azken azpikontratak lehenengo azpikontrataren langileak hartu beharko lituzke.

6- TRIk eskatuta azpikontrata batek langile murrizketa bat izango balu eta gerora honen kontratua TRIrekin bertan behera geldituko balitz, kontratatuko enpresa berriak lan lekuan dauden langile guztiak hartu beharko ditu, baita bere garaian kaltetuak izan zirenak murrizketagatik. Horrela izanda, irteten den enpresarekiko lokabeturik geratuko dira zerbitzua egiten duten lan lekuekiko.

Irteten den enpresak lan leku horretan kaltetutako langileen erlazioa, likidazioaren espresioa eta soldatak, antzinakotasunak, haborokinak, oporrak, e.a., enpresa berriarekin hasi baino 48 ordu arinago eman beharko ditu.

Enpresa berriak irteten den enpresan izandako eskubide eta betebeharrak berdinekin hartu beharko dituen langileak. Hala ere, Enpresa berria ez da arduradun izango, irteten den enpresan egondako soldata ezberdintasunak zein gizarte segurantzarekin egondako ordainketa faltaz.

## AKORDIO OSAGARRIAK TUBOS REUNIDOS INDUSTRIAL SLU-k 2017-2018 ALDIRAKO ADOSTU DUEN HITZARMENAREN BARRUAN

### - LEHENENGO AKORDIOA:

EPSV 133-A: ENPRESA EKARPENAK

2017 eta 2018 urteetarako tauletako TOTAL1 + Qaren inguruko %4eko langile guztientzako, TR EPSV 133-Aeko estatutuetan jartzen duenarekin bat egitekotan enpresan sarrera data alde batera utzita.

# 2017KO HITZARMEN PLATAFORMA LABen PROPOSAMENA

Berria

(KENDU)

"ALDATU"

## - BIGARREN AKORDIOA:

**ERRETIRO PARTZIALA ETA TXANDA-KONTRATUA APLIKATZEKO BALDINTZAK**

### INDARRALDIA

Erretiro partziala eta txanda-kontratua akordatutako baldintzetan era mugagabean egongo da.

Eskakizuna egiten duten langile orori ezartzeko konpromisoa hartzen du Enpresak.

Txanda ematen duen langilea, momentuko langile poltsatik aukeratua izango da lehenengo kontratua errespetatuz.

## - HIRUGARREN AKORDIOA:

2012ko maiatzaren 29an sinatutako akordioak indarrean daude, eta ezinbestean bete behar dira. Zehazki, hauek:

1. **HITZARMENA EZ APLIKATZEKO KLAUSULA:** "Tubos Reunidos Industrial enpresako zuzendaritzak hitzarmenean jasotako baldintza guztiak betetzeko konpromisoa hartu du bere gain, alderdien arteko berariazko akordiorik ez badago salbu".

2. **AURRERAERAGINA:** "Tubos Reunidos Industrial enpresako zuzendaritzak konpromisoa hartu du Tubos Reunidos Industrial-eko langileen legezko ordezkariekin lortutako akordioen edukia osorik errespetatu eta betetzeko 2018ko abenduaren 31tik aurrera, une horretan eta une horretatik aurrera indarrean egongo den Langileen Estatutuko 86. artikulua dioena dioela, eta 2017-2018 aldirako Tubos Reunidos Industrial-en hitzarmena ordezkatzeko duen beste hitzarmen kolektibo bat indarrean jartzen denera arte."

3. **LANALDIAREN BANAKETA IRREGULARRA:** "Tubos Reunidos Industrial enpresako zuzendaritzak bere hitzarmen kolektiboan lanaldiaren banaketa irregularra ez aplikatzeko konpromisoa hartu du bere gain."

# 2017KO HITZARMEN PLATAFORMA LABen PROPOSAMENA

Berria

(KENDU)

"ALDATU"

## - LAUGARREN AKORDIOA:

### BERDINTASUN PLANA

Lana eta Gizarte kontuetako komisioa urtean behin edo alde bietako baten batek eskatzen duenean bilduko da, Berdintasun eta Euskera planen jarraipena egiteko.

Hala ere, komisio honetan normaltasunez hurrengo gaiak jorratuko dira:

- Behin-behinekotasuna: enpresan dagoen behin-behinekotasunaren jarraipena egingo da eta behin-behinekotasun hori murrizte aldera zelako adostasunak hartuko diren.

## - BOSTGARREN AKORDIOA:

### EUSKALDUNTZE PLANA

Zuzendaritzak enpresan dagoen hizkuntza diagnostikoaren inguruko ikerketa bat eskatuko du. Honetarako Eusko Jaurlaritzak martxan duen Lanhitz programak dituen aukeraz eta finantziazioaz baliatu daiteke eta Hizkuntza Normalizazio Plana martxan jarri.

Euskeraren beharretarako erantzuteko, hizkuntzarekin bat egiteko trebakuntza plan bateri ekingo zaio.

Euskera ikastaroetan parte hartzeko erraztasunak emango dira.

Jendaurrean aritzen diren lan postuetarako dagoen trebakuntza planetan euskera ezarriko da.

Barne komunikazio guztiak, barne dokumentuak, oharrak, bileren aktak, e.a. euskeraz egongo dira.

Enpresak langileen esku jarriko du erabiltzen duen itzulpen zein zuzenketa zerbitzua fabrikari agiriaren bat atera ahal izateko.

Enpresak urtero, enpresaz kanpo egiten diren euskeraren aldeko ekintzetara diru bat emango du ekintza hauek promozionatu eta laguntzeko.

Enpresak, Kultur, kirol, e.a. eragileei ematen dien diruaren truke, euskeraren erabilera eskatuko du.



# 2017KO HITZARMEN PLATAFORMA LABen PROPOSAMENA

Berria

(KENDU)

"ALDATU"

## - SEIGARREN AKORDIOA:

### INGURUGIROAREN JASANGARRITASUN PLANA (BIDEGORRIA)

- Bidegorritik enpresa txartelarekin zabaltzen den ate bat jarri, enpresara bizikletaz (ekologiko eta garbia den garraiobidea), oinez edo trenez (trenbide nasan dauden eskailerak oso egoera txarrean aurkitzen dira) etortzea erabakitzen duten Tubos Reunidos Industrialeko langileak sartu daitezzen.
- Auto elektrikoentzako kargatzeko puntu bat jarri.